

4 Zumarragako kaleetan euskararen erabilera indarberritzeko proposamena

Aitor Lizarazu

Euskara teknikaria

aitorlizarazu@yahoo.es

Sarrera-data: 2011-10-31 | Onartze-data: 2012-01-12

Laburpena. Zumarraga eta Urretxu herrietan euskararen ezagutzak gora egin arren erabilerak behera egin du auzo ezberdinetako kaleetan, adin taldeen artean, baita haurren presentziaren arabera ere. Oro har, 2001 eta 2005eko %22tik %18,9ra jaitsi da 2009an. Artikulu honetan erabilera indarberritzeko proposapen desberdin batzuk egiten dira, arnasguneak kontuan hartuz, lagunartea, auzo hurbila eta eguneroko kale-bizitza eragiteko. Helburu nagusia ditugun baliabideak kontuan hartuz kalean entzuten den euskararen erabilera handitzea da. Horretarako, Joshua Fishmanen teoria ezaguna (Reversing Language Shift) lagungarri izanen zaigu. • **Hitz-gakoak:** *euskararen erabilera kaleetan – Zumarraga (Gipuzkoa) – indarberritzeko proposamenak – Fishmanen RLSa.*

Abstract. Proposal to revive Basque use in the streets of Zumarraga. Even though the knowledge of Basque in the Basque Country's towns of Zumarraga and Urretxu has increased, use has fallen in the streets of several neighbourhoods in terms of age groups, and also in terms of the presence of children. Overall, the 22% recorded in 2001 and 2005 fell to 18.9% in 2009. Different proposals are made in this paper to revive use, bearing in mind breathing spaces, in order to exert an effect on friends, the neighbourhood close to home and everyday street life. Bearing in mind the available resources, the main aim is to expand the use of Basque that is heard on the streets. So we will find Joshua Fishman's well-known theory (Reversing Language Shift) useful. • **Key words:** *street use of Basque – Zumarraga (Gipuzkoa) – proposals for revival – Fishman's RLS.*

HITZAURREA

I 2009an Urretxuko Udaletik, kale neurketa berri bat egiteko proposamena heldu zenean Zumarragako Udalara oniritzia eman zitzaion beste behin ere. Aurrez ere Urretxuk eta Zumarragak elkarrekin buru izan zuten kale neurketa 1993 eta 1997 urteetan erdigunean eta 2001, 2005 urteetan erdiguneaz gain beste auzoetako ibilbideetan.

2010eko maiatzean aurkeztu ziren 2009ko neurketen datuak. Bertan nabarmentzekoa da euskararen erabilera jaitsiera erabilerari zegokionez. Ezagutzak gora egin arren erabilerak behera egin du bai herrietako auzo ezberdinetan, bai erdialdean, adin taldeen artean, baita haurren presentziaren arabera ere. Oro har, 2001 eta 2005eko %22tik, 2009ko %18,9ra. Jaitsiera gainera era berezian antzeman da gazteen artean. Honen, Euskara Zerbitzuetan gabiltzanoi, hainbat galdera sortarazi zizkigun Euskara Zerbitzuetatik burutzen ari garen lana egokia al da? Ditugun baliabideekin ba al dugu etekin hobea ateratzerik?

Galdera hauei erantzun asmoz eta Euskara Zerbitzuetatik burutzen ari garen lanaren hausnarketa burutzea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun. Jarraian aurkezten dugun proposamena udaletxeak aurrera darman Euskara Biziberritze Plan Nagusiaren (aurrerantzean EBPN) osagarri edota egokitzapen izateko asmoarekin sortua da. Lan honetarako ezinbesteko suertatu zaigu soziolinguistikan formatzea horretarako HIZNET Hizkuntz Plangintza Ikastaroa burutu dudalarik. Bertan ikusirik oinarri teorikoak, eta bereziki Mikel Zalbidek aurkezturiko Joshua Fishmanen Hizkuntz Indarberritze (aurrerantzean HINBE) teoria oinarri hartuta Zumarragako euskararen hizkuntza plangintzan eragitea dugu helburu.

Azken finean, eta abiapuntura itzuliz, lan honen helburu nagusia ditugun baliabideak kontuan hartuz kalean entzuten den euskararen erabilera handitzea izango da.

1. IKUSPEGI BERRI BAT: HIZKUNTZEN INDARBERRITZEAREN TEORIA (HINBE)

I Orain arte udaletik burutu izan dugun EBPNari ikuspegi berri bat eskaintzen dio Joshua Fishmanen Hizkuntza indarberritzeko teoriak (HINBE)¹. Hasteko mintzaldatzeaz edo Language Shift delakoa azaltzen du esanaz, mintzaldatzea da “hiztun talde batek, jardun-esparru batean edo askotan, luze-zabalean hizkuntza” aldaketa eman duenean ematen dela esaten da.

Ezagutzak gora egin arren erabilerak behera egin du bai herrietako auzo ezberdinetan, bai erdialdean, adin taldeen artean, baita haurren presentziaren arabera ere.

hainbat galdera sortarazi zizkigun Euskara Zerbitzuetatik burutzen ari garen lana egokia al da?

**Joshua
Fishmanen
Hizkuntza
Indarberritze
(aurrerantzean
HINBE) teoria
oinarri hartuta
Zumarragako
euskararen
hizkuntza
plangintzan
eragitea dugu
helburu.**

**Azken finean, eta
abiapuntura
itzuliz, lan honen
helburu nagusia
ditugun
baliabideak
kontuan hartuz
kalean entzuten
den euskararen
erabilera
handitzea izango
da.**

Ez dirudi gehiegi denik esatea XX. hasieran oraindik Zumarragako euskara-erdaren eguneroko mintzajardun zabal arrunta euskararen alde makurturik zegoela. Hor izango zen, noski, gaztelera eskoletan eta agintarien artean, baina euskarak menperatuko zuen etxean (gehienetan), kalean, taberna zulotan, jai-ospakizunetan eta zelai-soroetan. Euskara zen hizkuntza menperatzailea, Fishmanen “dominance configuration” edo eremu horietan. Baina XXI. mendera jauzi eginez inork gutxik onartuko dizkio menpekotasun horiek euskarari gaur egun: XX. mendean zehar mintzaldatzea eman da, hau da, jardun esparru batzuetan (lagun artean, aita-semeen artean, tabernan...) euskara erabiltzetik gaztelera erabiltzera pasa da. Beraz XX. mendean Zumarragan mintzaldatzea eman da.

Hizkuntza aldatzeak gertatzen direla kontuan hartuz, aldaketa hauek neurtzeko era proposatuko digu Fishmanek. Dena den lehenik zergatik gertatzen diren azalduko digu.

Zumarragari dagokionez bi aipatuko genituzke bereziki baina pisu ezberdinarekin: debekua eta dislokazio demografikoa.

Gure herri honetan oraindik ere badugu debekuen oihartzunik. Oraindik ere ezagunak dira gerra ondoreneko debekuen hotsak. Eta egia da Zumarragako Udaleko akta historikoan erreparatuz euskalgintzaren inguruko erabakietan etena garbia dela. Dena den, agian inork gutxi suposatuko du galera gerra aurretik ere bazegoela. Jarraian Xabier Lizardi euskal idazlearen gerra aurreko pasarteak:

Negargarria eta arrigarria! Gaurdaño etsirik bageunden uri aundietan, Donosti batean, Irun batean, Tolosa batean, gipuzkoarren mintzo gozoa galtzen zijoala, guraso arreak nunbait zakarregizat jota, bere aurren ezpaintxo minberak larrutuko dituan beldurak edo... ez genekian, ez nik behintzat, Gipuzkoaren biotzean, Gipuzkoako alderdi joriaren erdian, erri az aundi batek, Zumarraga batek, beste aiek bezin ostikopetua zuanik euskera. (...)

Beraz, gerrak izan zuen eraginari garrantzia kendu gabe, aurretik zetorren mintzaldatze prozesua.

Dislokazio demografikoari dagokionez errepara diezaiegun Zumarragako biztanleri datuei² XX. mendean zehar:


1. Taula. Zumarragako biztanleen bilakaera demografikoa

Urtea	Biztanleria
1901	2.000
1911	2.043
1921	2.064
1931	2.418
1941	3.237
1951	3.598
1961	7.151
1971	12.215
1981	11.798
1991	11.020
2001	10.108
2010	9.957

XX. mendean zehar mintzaldatzea eman da, hau da, jardun esparru batzuetan (lagun artean, aita-semeen artean, tabernan...) euskara erabiltzetik gaztelera erabiltzera pasada.

Kopuruak grafiko batean irudikatuz:

1. Grafikoa. Zumarragako biztanleen bilakaera demografikoa



Halaxe aipatzen da udalaren webgunean (www.zumarraga.net).

Zumarragaren kasuan XX. mendeko emigrazioaren arrazoi nagusitako bat Esteban Orbegozo fabrika hartu behar da. Bertara, trenak laundurik, samaldan etorri ziren etorkinak bereziki 50-70 hamarkadetan.

**Beraz, gerrak
izan zuen
eraginari
garrantzia kendu
gabe, aurretik
zetorren
mintzaldatze
prozesua.**

Etorikin gehienak erdaldunak ziren nahiz eta euren artean baziren in-
guruko herrietatik etorritakoak.

Bigarren arrazoi honi atxikitzen dira, oro har, zumarragar asko min-
tzaldatzearen arrazoiei buruz aritzerakoan. Ez dezagun ahantz etorkin guzti
hauek euskarak inolako babes instituzionalik ez zuen garaian etorri zirela.

Fishmanek mintzaldatze fenomeno honi kontra egiteko proposa-
mena aurkezten du: RLS edo Reversing Language Shift. Guretzako
HINBE edo Hizkuntzaren Indarberritze deituko duguna.

Udalak badira urteak euren Hizkuntza Politikak aurrera eramaten
dituztela euskararen mesedetan. Are gehiago, Urretxu Zumarragan eus-
kararen ezagutza azken urteetan bermatzen ari dela diote datuek ikas-
tetxeen lanari esker neurri handi batean. Urretxu-Zumarragako ikaste-
txeetan LH eta DBH D ereduan eskaintzen dira³.

Dena den nago ez ote diren indarrak, hein handi batean, erdaldunak
euskalduntzeari edo euskaraz ere egiteari begira egon euskararen eremu
diren horiek indartu eta elikatu beharrean. Ikuspegi berri hori gehitzea
dator geure proposamen hau.

Fishmanek berak dugun indarra euskararen erabilera bermatzera
bideratzeko eskatzen digu. Alde horretatik arnasmuneei berebiziko ga-
rrentzia eskaintzen die.

Gurera etorri: euskarazko etxea eta lagunartea, herria eta bizimodua
direla, lehenik eta behin, euskalgintzaren eta herri-izatearen muin-mui-
nean daudenak.

Zeintzuk dira Zumarragako arnasmunee horiek? Horiexek identifi-
katzeko eta euren arteko elkarreraginak bilatzeko proposatzen ditu so-
ziologo estatu batuarrak. Horretaz gain gauden egoeratik eta ditugun
baliabideetatik baliatzeko eskatzen digu.

HINBE hizkuntzalaritzari baino soziologiari lotuago dago. Horre-
xegatik adituen eta arituen lanak ezagutzeko beharra azpimarratzen
du Fishmanek. Are gehiago, "neurriko trajea" egiteko eskatzen digu.

Honetantxe saiatuko gara geu ere, egiten denari arnas berritzearen
ikuspegia emanaz.

Kontuan hartzekoak dira bere hainbat kontsiderazio:

(...) bititza modernoak ezinezko bihurtu du edozein kulturarentzat erabat
burujabe izatea.

Horren harira Fishmanek hasiera batean harridura sor dezakeen
proposamena luzatzen du ahultasun egoeran dagoen hizkuntzarentzat:
diglosia.

Diglosia zentzu honetan:

Berak planteatzen duena (elebitasun diglosiaduna alegia) beste hau da: euskaldunok euskaldunokin euskaraz jardutea funtzio jakinetan (ahalik eta gehienetan), nahiz eta erdaldunekin oro har (bai eta euskaldunekin ere beste zenbait funtziotan, hala suertatzen denean) erdaraz jardun.

Gaur egun pentsamendu horrek euskaltzale askoren pentsaerarekin tupust egin dezake, baina ez al genuke nahi Zumarragako eremu edo ekitaldi batzuk euskaraz funtzionatzea erdaldunei inongo arazorik suposatu gabe? Neurri batean hauxe lortua dago derrigorrezko hezkuntzan eta hurrei bereziki eta gazteei zuzenduriko kultur ekintzetan. Ez al litzateke interesgarria beste eremu batzuk irabaztea?

Hortaz diglosia izan behar da bilatu behar duguna. Zumarragako kaleetan gune jakin batzuetan edo egun jakinetan euskara nagusi izango eremuak.

Zeintzuk izan beharko lukete eremu horiek? Horretarako geure diagnostikoa egitea komeniko litzateke.

Fishamen BAEN eskalaren arabera 6. mailan kokatuko ginатеke.

Jaioko dira berriak? Euskarazko gizarte hurbilari eutsi eta, ahal bada, euskal arnasguneak sortu.

Honela definitzen du 6. eskala.

Gero eta erdal itsasoen murgilduago bizi dira, (...) Euskarazko gizarte hurbilari eutsi eta, ahal bada, euskal arnasguneak sortzea dute amets, baina kosta egiten zaie halakorik (partez bederen) erdiestea. Aitona-amonek, gurasoek eta seme-alabek (nola- hala, eta guztiek ez bada gehienek edo askok behintzat) euskaraz dakite, baina etxean edo auzoan, lagunarte hurbilean eta kale-bizitzan gero eta sarriago (batez ere gurasoek eta gazteek) erdaraz egiten dute.

Ezagutza datuek hala diote: ia erdia %49,6 elebiduna da, %18,5 ia-elebiduna eta soilik %31,9 omen da erdaldun elebakarra. Datuen arabera, gehienek euskaraz dakite edo ulertzen dute. Erabilerari dagokionez badi-rudi azken lau urteetan gero eta gehiago entzuten dela erdara, batez ere gazteen artean.

Fishmanek eten-urratzeko maila honetan zentratzen ditu bere lanak maila honetan lan egiten ez badugu alferrik ari baikara.

Samaldan etorri ziren etorkinak bereziki 50-70 hamarkadetan. Etorkin gehienak erdaldunak ziren nahiz eta euren artean baziren inguruko herrietatik etorritakoak.

**Dena den nago
ez ote diren
indarrak, hein
handi batean,
erdaldunak
euskalduntzeari
edo euskaraz ere
egiteari begira
egon euskararen
eremu diren
horiek indartu
eta elikatu
beharrean.**

Gauzak honela, orain arteko udaletxetik bideratzen den EBPNaN kontuan hartzen al dira Fishmanek aipaturikoak?

Geuk, orain arte egin denari meriturik kendu gabe, gure proposamena eskaintzen saiatuko gara euskararen arnaguneak indartzeko handitzeko asmoz.

2. PLANGINTZA: ZUMARRAGAN EUSKARAREN KALEKO ERABILERA INDARBERRITZEKO PROPOSAMENA

I

Fishmanen indarberritze teoriatik hauxe jaso dugu laburki:

- a) Premiazkoenetik abiatzeko: geroakoak gero.
- b) Etxeko giroan, lagunartean, auzo hurbilean eta eguneroko kalebizitzan euskaraz jardutea, eta jarduteko aukera zabalak izatea, lehenengo-lehenengo kezkabidea izan behar duela guretzat. Euskal arnaguneei eustea.
- c) Euskaldunok euskaldunokin euskaraz.
- d) Euskaraz bizi diren euskaldunak izan behar ditugu, batez ere, begien aurrean.
- e) Gurasoetatik seme-alabetara, hizkuntza osasuntsu guztiek egin ohi duten moduan, transmititzeko ahalmena.
- f) Indarberritzeak galdera honi erantzun behar dio: zenbateraino lagunduko digu hurrengo belaunaldiak euskaraz egin dezan?

Gure proposamenak 3 pausu hauek izango ditu:

1. Estrategia: diagnostiko zehatza egitea, hemen eta orain, eta ditugun baliabide jakin hauekin, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea.
2. Taktika: funtzio horiek indartzeko proiektu bereziak antolatu eta hezurmamitzea.
3. Ebaluazioa: Kontuak ateratzea: zer ondo atera den, zer erdizka eta zer gaizki, argi eta garbi bereizi behar dugu. Emaizta diferente horien zergatikoa eta zenbaterainokoa ere esplikatzeko saiatu behar dugu.

Zeintzuk dira Urretxu eta Zumarragako kaleetako arnaguneak? Hau da, zeintzuk dira euskara gehien erabiltzen den gune, adin-tarte, sexu eta eguna? Honen berri badugu ematerik kale neurketari esker.

2.1. Estrategia

Diagnostiko zehatza egitea, hemen eta orain, eta ditugun baliabide jakin hauekin, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea". (M. Zalbide)

Zeintzuk dira Zumarragako kaleko arnasmuneak? Edo neurri apalagoan indargune horiek?


Alde batetik aipatu dugu landa eremuan, salbuespenak salbuespen ez dela mintzaldatzerik eman. Baserriak dira Zumarragan euskararen mintzaldatzea eman ez den ia eremu bakarra.

Horretaz gain aipatzekoak dira derrigorrezko hezkuntza eskaintzen duten **3 ikastetxeak**: herri eskola (Gainzuri), ikastola eta kristau eskola (La Salle). Hiruek ere D ereduari eskaintzen dute euren ikas eskaintza.

Hauek aipaturik, errepara dezagun Soziolinguistika Klusterrak emantiko datuei (2009):

- Eremua: Zein da euskara gehien entzuten den eremua?

2. Grafikoa. Urretxu-Zumarragako erabilera guneka



Erdigunea da zonalderik euskaldunena eta koskarekin. Urretxuko Gernika-Iparragirre ibilbidean entzuten da gehien euskara (lau elkarriketatik bat), ondoren Zumarragako erdigunea Secundino Esnaola eta Legazpi kaleetan %20 eta atzetik eta diferentziarekin Eitza auzoa ondoren %8,3 eta azkenik Leturiarren enparantza %4,9arekin.


Neurri batean hauxe lortua dago derrigorrezko hezkuntzan eta haurrei bereziki eta gazteei zuzenduriko kultur ekintzetan. Ez al litzateke interesgarria beste eremu batzuk irabaztea?

Fishmanek eten-urrazteko maila honetan zentratzen ditu bere lanak maila honetan lan egiten ez badugu alferrik ari baikara.

Geuk, orain arte egin denari meriturik kendu gabe, gure proposamena eskaintzen saiatuko gara euskararen arnasmuneak indartzeko handitzeko asmoz.

Bilakaerari erreparatuz ere jaitsierak jaitsiera ordena errespetatzen da:


3. Grafikoa. Zonaldekako erabileren bilakaera (2001-2009)



Beraz, Urretxuko Gernika-Iparagirre ingurua eta Zumarragako Legazpi-Secundino Esnaola kaleak dira bi herrietako euskara gehien entzuten diren kaleak⁴.

• Adinaren arabera: Zein adin taldek erabiltzen du gehien euskara Urretxu eta Zumarragan?


4. Grafikoa. Erabilera adin-taldeka (2009)



Haurrak dira gehien erabiltzen dutenak ia heren bati (%30) entzun zaiolarik neurketetan, ondoren helduek elkarrizketen %17arekin eta jarraian gazteak %15eko portzentajearen. Adinekoak dira gutxien erabiltzen dutenak neurketaren arabera %7,9arekin.

Azken urteetako bilakaerari erreparatzen badiogu:

5. Grafikoa. Adin-taldekako erabileraren bilakaera (2001-2009)



Jaitsiera lineala izan da helduen kasuan izan ezik ia hiru puntu igo delarik azken zortzi urteetan.

Beraz, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Ondoren helduak baina hauen kale erabilera haurren portzentajearen ia erdia da. Gazteak dira hurrengo haurren kopurua erdira jaitsiz. Adinekoek entzuten zaie gutxien euskaraz Urretxu Zumarragan helduen erabilera erdira jaisten delarik.

- Haurren presentzia: nolako eragina du haurren presentziak euskararen erabileran?

Helduen bigarren postu hori (ohikoa gazteak izatea denean) haurren presentziari loturik egon daiteke:

Gure proposamenak 3 pausu hauek izango ditu:


1. Estrategia: diagnostiko zehatza egitea eta hizkuntzaren belauneko belauneko jarraipena indartzeko funtzio egokienak zein diren argitzea.

2. Taktika: funtzio horiek indartzeko proiektu bereziak antolatu eta hezurmamitzea.

3. Ebaluazioa: Zeintzuk dira Urretxu eta Zumarragako kaleetako arnasmuneak? Hau da, zeintzuk dira euskara gehien erabiltzen den gune, adin-tarte, sexu eta eguna?


Baserriak dira Zumarragan euskararen mintzaldatzea eman ez den ia eremu bakarra.

6. Grafikoa. Haurren presentziaren arabera erabilera bilakaera



Haurren presentzia izan ala ez zegoen aldea 2001ean 18,1 puntukoa zen, 2005ean handitu egin zen 22,7 puntura eta 2009an pittin bat jaitsi da diferentzia 21,1 puntukoa delarik.


7. Grafikoa. Erabilera haurren presentziaren arabera (II) (2009)



Euskara gehien neurtu den elkarrizketa mota **haur-nagusi** erakoa izan da %35,9an neurtu delarik. Ondoren haurren artekoa %30,1ekin. Haren ondoren nagusien arteko elkarrizketak leudeke %16,9arekin haurrak mintzakide ez direlarik. Azpimarratzekoa da, haurren presentziarik ez dagoen elkarrizketen %7,9 izan direla euskaraz neurketaren arabera.

Bilakaerari erreparatzen badiogu erabilera ordena, behinik behin, errespetatzen da:

8. Grafikoa. Erabilera bilakaera mintzakidea kontuan hartuta (2001-2009)




Beraz, Urretxuko Gernika-Iparragirre ingurua eta Zumarragako Legazpi-Secundino Esnaola kaleak dira bi herrietako euskara gehien entzuten diren kaleak.

Beraz, nabarmena da hurren presentziak kalean entzuten den euskara duen eragina. Hain zuzen ere haur-nagusi elkarrizketak dira Urretxu Zumarragan euskara gehien erabiltzen den testuingurua, hiru elkarrizketetatik bat (%36). Ondoren hurren artekoa dago (%30) eta hirugarren postuan ia erdira jaitsita gurasoen artekoa hurren mintzakide ez direla (%16,9).

- Egun eta orduaren arabera: zein da Urretxu-Zumarragan euskara gehien entzuten den egun eta ordua?


9. Grafikoa. Neurketa egunen araberrako emaitzak



Haurrak dira gehien erabiltzen dutenak ia heren bati (%30) entzun zaiolarik neurketetan. Adinekoak dira gutxien erabiltzen dutenak neurketaren arabera %7,9arekin.

Larunbat goizak dira euskara gehien entzun den egun eta ordua %22. Honek astero Zumarragako Euskadi Enparantzan burutzen den azokarekin kointziditzen du. Pentsatzekoa da inguruko baserri eta herrietatik ere hurbiltzen direla larunbat goizetan Zumarragara. Kontuan hartzeko da, azoka izan ez den beste bi neurketetan euskararen erabilera ia %17an kokatu dela.

10. Grafikoa. Neurketa egunen arabeko emaitzen bilakaera



Bilakaerari erreparatuz badirudi azokak eragin zuzena duela euskararen erabileran Zumarragako kaleetan. Esan beharra dago, halaber, Euskadi enparantza XIX. mendearen bigarren erdian eratu zela orduko Kale berriarekin batera eta Zumarragaren erdigunean dagoela.

Beraz, Soziolinguistika Klusterraren kale neurketaren datuei erreparatuz: herrian euskara gehien erdigunean entzuten da; astegunei dagokienez, larunbat goizetan eta adin taldeen arabera haurren artean; haurren presentzia pisuzko faktorea da haur-nagusi elkarriketak direlarik euskaraz gehien ematen direnak.

- Beste hainbat arnasmune

Landa eremua eta eskolaz gain, arnasmune dira kultur elkarteei erreparatuz, bertso-eskola, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarte, euskarazko irakurle taldea, mintzalagunak, Zumarragako trikitilariak eta oraintsu herrian sortu berri den Kantujira taldea. Elkarte horiek kontuan hartuko ditugu eta besterik ere bai baldin bada gure helburuekin bat datorrena.

Kirol elkarteei dagokienez: herri-kirolak, ostadar mendi taldea eta pilota eskola aipatu behar.

Lan munduari erreparatuz 3. sektorea aipatu behar. Nagusiki udala aipatu behar ezagutzak ezagutza badirelako sail batzuk (kultura, gazteria,

euskara eta hezkuntza) nagusiki euskaraz lan egiten dutenak. Hauez gain identifikaturik daude herriko hainbat merkatalgune 2006tik Udal Elkarte mailan burutzen den “merkatariei euskaraz” programa dela-eta.

2.2 Taktika

“Funtzio horiek indartzeko proiektu bereziak antolatu eta hezurmamitzea.” (M. Zalbide).

Arestian aipatu bezala gure proposamenak egun EBPNren barruan egiten denaren osagarri eta indargarri izatea dute helburu.

Berriro errepikatu nahi nuke: jarraian proposatuko dugunak ez du EBPNa ordezkatzeko helburu, EBPNa Hizkuntzaren Indarberritzearen ikuspegitik aberastea baizik. Azken finean, ahal den neurrian, egiten ari denaren osagarri eta indargarri izan nahi du.

Hortaz, EBPNa sailkatzeko egun dauden 10 esparruak⁵ kontuan harturik geure proposamena luzatuko ditugu.

2.2.1 Familia transmisioa

Kale neurketaren arabera, nabarmena da haurren presentziak duen eragina bereziki helduen euskararen erabileran. Ordea, kopurua asko jaisten da gurasoak euren artean ari direnean.

Indarberritzeari erreparatuz haur parkeak euskal arnasgune izatea indartu beharko genuke.

Horretarako, adibidez, haurrak eta gurasoak euskaraz jolasten jartzea izan liteke aukera bat. Ondo pasatzeko dinamiken bidez haurrek haurren artean eta gurasoekin; eta gurasoak euren artean ere euskaraz jolasean jartzea izango litzateke helburu, ahal bada maiztasun batekin.

Ekintza eta aktibitate horiek aurrera eramateko oso garrantzitsua litzateke jolasen antolatzaileentzat helburuak argi izatea eta hizkuntza jarrerak ere bai. Ezinbestekoa litzateke euskara ulertzen ez dutenak deseroso ez sentitzea, baina aktibitateak euskaraz burutu beharko lirateke. Puntu hau errespetatua izateko garrantzitsua izan daiteke euskara elkartearen parte-hartzea.

Oso positiboa izan daiteke euskaraz ez dakien gurasoarentzat bere haurrarekin euskaraz ere jolasteko gai dela erakustea. Oso positiboa izan daiteke haurarentzat eskolatik kanpo ere bere guraso (edo aitona-amonekin) euskaraz jolastu daitekeela ikustea eta, halaber, oso positiboa izan daiteke euskaraz jakin bai, baina euren artean erdaraz mintzo diren gurasoak elkarrekin euskaraz jolasten jartzea, betiere kontuan hartu beharko delako bai guraso bai aitona-amona askok ez dutela euskaraz jakingo.

Jaitsiera lineala izan da helduen kasuan izan ezik ia hiru puntu igo delarik azken zortzi urteetan.

Haurren presentzia izan ala ez zegoen aldea 2001ean 18,1 puntukoa zen, 2005ean handitu egin zen 22,7 puntura eta 2009an pittin bat jaitsi da diferentzia 21,1 puntukoa delarik.

Azpmarratzekoa da, haurren presentziarik ez dagoen elkarrizketen %7,9 izan direla euskaraz neurketaren arabera.

Elkarrizketak dira Urretxu Zumarragan euskara gehien erabiltzen den testuingurua, hiru elkarrizketetatik bat (%36).

Jolasez gain euskarazko ikuskizunak ere eskaini daitezke, baina beti ere haur eta helduen euskarazko parte hartzea bilatuko dutenak (paila-zoak, magoak...).

Azken finean helburua haurren parkeetan euskararen erabilera indartzea izango da. Zein haur parkeetan? Bada baliabideen arabera erabilera handienekotik hasi beharko genuke, erdigunetik alegia.

2.2.2 Euskalduntzea-prestakuntza

Positiboa litzateke euskaltegiaren presentzia kalean handiagoa izatea.

Interesgarria litzateke mintzalagun topaketak egitea arnasguneetan: haur parkeetan, azoka egunean kasu.

Halaber garrantzitsu litzateke euskaldun berriak saritzea:

- Udalak antolatutako euskarazko kultur ekintzetan deskontuak eskaini.
- Azokako erosketetarako deskontuak.

Beraz bi ildotatik jorratuko genuke: kalean presentzia handitzea eta euskaldun berrien errekonozimendua.

2.2.3 Irakaskuntza

Kale neurketaren datuak ikusirik gazteen artean (14-25 urte) ematen da euskararen erabileran jaitsierarik handiena, haurrekin alderatuz erabileraren erdia izatera pasatzen delarik. Hala ere, eskolak arnagune dira gurean eta osatu eta elikatu beharren gaude.

Urteak dira Urretxu eta Zumarragako udalek elkarlanean dirulaguntzak eskaintzen dizkietela ikastetxei baldintza batzuk betetzearren⁶. Oinarri horiek indarberritzearen arabera berraztertu behar direlakoan gaude.

Diru-laguntzaen oinarrietan haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako eskolaz kanpoko jarduerak laguntzea du helburu, baina ez al litzateke hobea, datuak mahai gainean, DBHn (are gehiago, baita batxilergo eta lanbide heziketan) zentratzea laguntza horiek? Adin horietan da euskara erabiltzeari nabarmenki uzten zaion garaia kale neurketako datuen arabera eta ondorioz, ez al litzateke adin talde hori (12-18) era berezian lagundu behar?

2.2.4 Administrazioa

Halaxe aipatu digu Mikel Zalbidek bere irakurtean:

bizibide erosoagoa eta hobeto ordaindutako lanpostuak eskuraiezazkiezu, eta orduan ez dute beren euskara hori desabantaila sozialekin hain erraz uztartuko⁷.

Administrazio publikoak oro har, eta herri administrazioak bere barne, berebiziko eragina du euskararen prestigioari dagokionez. Jende askok desio du eurak edo euren seme-alabak lan egonkor eta duin bat izatea eta helburu hori ondo betetzen du administrazio publikoak.

Udaletxearen kontratazioetan euskara ezagutza kontuan hartu behar da, baita aldi baterako diren kontratazioetan ere.

Horrez gain, udalak giltza dira euren politikekin baliabideak eta baldintzak jarri eta kontrolatzeko orduan.

2.2.5 Lan mundua

Aipatu dugu 1. sektorean ez dela mintzaldatzerik eman oro har. Halaber 3. sektorean ere bada Udal Elkarteak bultzaturik “merkataritzan euskaraz” kanpaina hainbat indargune adierazten dizkigularik. 2. sektorean da, industria, arnagune gutxien antzematen diren eremua enpresa txiki bakanen bat salbu.

Hortaz landa eremua dugu, nagusiki arnagune.

Hortaz, baserritarrak kalera jaisten direnekoa aprobeitza beharko litzateke arnagunea baita berau. Horretarako bi bide jorra litezke: alde batetik landa mundua eta baserritarrak prestigiatu beharko litzateke eta bestetik topaguneak baliatu euskara indartzeko.

Baseri eta landa eremuak prestigiatu

Baseri eta landa eremuak prestigiatu beharrean daude. Mikel Zalbidek bere artikuluan aipatzen zuen bezala baserria lehengo ohitura edo eremu atzerakoi bezala hartu izan da eta hartua da batzuentzat. Egun, ordea, bada kontrako diskurtsoa kaletarren artean ekologiaren bidetik datorrena: bizitza osasuntsua, ekologia, birziklatzea, naturarekiko errespetua... Bide horretatik baserriak prestigiatu ahal dira eta prestigiatu beharrean gaude.

Horretarako, hainbat arnagune metaketa burutu daitezke adibidez ikastetxeekin:

- Eskoletatik bisitak egin daitezke: egun egiten dituzte langintza ezberdinak ezagutzeko.
- Eskoletatik gure aitona-amonei elkarrizketak egin lehengo bizi-modua ezagutzeko.
- Baserritarren euskara prestigiatu: ahozkotasunari garrantzia eman, euskararen estandarizate berantiarren berri eman, euskararen historia ezagutarazi... Mundu mailako hizkuntzen egoeraren pertzepzioa hartzeko balia daiteke baita hizkuntz ekologia korrontea ezagutzeko ere.

Dira euskara gehien entzun den egun eta ordua %22. Honek astero Zumarragako Euskadi Enparantzan burutzen den azokarekin kointziditzen du.

***Azken finean,
ahal den
neurrian, egiten
ari denaren
osagarri eta
indargarri izan
nahi du.***

***Haurrak eta
gurasoak
euskaraz jolasten
jartzea izan
liteke aukera bat.***

– Baserri eremuko ospakizunetan parte hartu: Aginako San Martinak, San Isidroak, Gabon kantak eta Ageda bezpera baserriz baserri...

Larunbat goizetako azoka prestigiatu: kaleko elkargunea prestigiatu

Baserriak eta landa eremuak prestigiatu bai, prestigiatu daiteke, baina gure helburuetarako, hau da, kale erabilera eragiteko kaleko topagunea indartu behar dugu. Eta zein da topagune hori? Bada neurketaren arabera larunbat goizetako Zumarragako azoka. Urretxu eta Zumarragako erdigunean dugu.

Ez dirudi kasualitatea denik asteroko azoka burutzen den egun eta eremua izatea euskara gehien entzuten dena kale neurketaren arabera. Pixka bat erreparatuz gero, azokara gerturatzen diren asko Zumarraga eta Urretxu eta inguruko herrietatik etortzea (eremu euskaldunagoak oro har) eta hauez gain gure inguruko baserrietako baserritarrak ere hurbiltzen dira. Aldeko adierazle horiek baliatu beharra dago kalean entzuten den euskara indartzeko. Larunbat goizetako azoka arnagune da eta horixe indartzeko ahalegina egin.

Jarraian proposamen batzuk adibide modura:

- Baserriarren produktuak prestigiatu: elikadura osasuntsuarekin lotu, merkataritza zuzenarekin, nekazaritza ekologikoarekin...
- Euskal baserriarrei euren kartelak euskaraz jartzeko aukera eskaini Euskara Zerbitzuaren laguntzaz.
- Elkarlana eskaini Euskara Zerbitzuetatik baserriarrei kanpaina eta diskurtso bateratua eskainiz: hizkuntzen ekologia eta baserriaren ekologia, hemengo produktuaren balio erantsi eta hemengo hizkuntzaren balio erantsia, txikien aldeko babesa... Baserritarrak eta euskara prestigiatu.
- Azoka ezagutzeko aukerak eskaini, prestigiatu.

Gehiago ere badira: arnagunea indartzeko azoka egunetan euskal emanaldiak eskaini daitezke. Agenda bat adostu arnagune diren elkarreetekin: bertso-eskola, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak, euskarazko irakurle taldea, mintzalagunak, Zumarragako trikitilariak eta Kantujira taldea, herri-kirolak, ostadar mendi elkarteak... ekitaldiak antolatu: pailazoekin, magoekin... plaza inguruko ostalariekin akordioak hartu daitezke euskal giroa bultzatzeko... Helburua larunbat goiza eta azoka euskararekin lotzea izango da hartara arnagunea indartuz.

2.2.6 Aisia

Aipatu dugu dagoneko, hutsuneak hutsune, ikastetxeak eta euren ereduak arnagune direla lehen eta bigarren hezkuntzan. Jakin badakigu eskolaz kanpoko eremuak direla gazteen aisialdiari begira etorkizunerrako erronka.

Honi dagokionez, udaletik burutzen dira, bereziki gazteenei begira urtean zehar izan ohi diren oporraldi garaietako hainbat ekimen. Hauek euskaraz eta kalean izan ohi dira: Gabonetan, Pazko Astean eta uztailean Udaleku irekietan.

Arnagune hauez gain, kontuan hartzeko da 2010ean ireki berri den Nerabeentzako Zerbitzua. Lokal honetan 12-17 urte bitarteko gazteak biltzen dira euren aisialdia kudeatzeko bi hezitzaileen laguntza dutelarik. Bi hezitzaile hauek giltza dira gazteen erabilerari dagokionez eta bai eurentzat bai estrategikoak diren beste hezitzaileentzat (entrenatzaile, begirale...) ondo legoke euren erantzukizunaren kontzientzia hartzeko formakuntza saioaren bat antolatzea.

Honez gain, eremu hauetan nerabeek elkarrizketa horizontal informalak mantentzen dituztenez, garrantzitsua litzateke Nerabe Zerbitzuaren euskararen erabilerari jarraipena egitea, mintzaldatzeak eta euren faktoreen jarraipena eginaz. Datu horiek garrantzitsuak dira udaletako nerabeentzako politikak diseinatzeko orduan.

Hori gutxi balitz oso kontuan hartzekoa da 14-25 urte bitarteko gazteek zertan pasatzen duten eskolaz kanpoko aisialdi hori ahal den neurrian eurentan eragiteko. Dena den, azaleko pertzepzioaren arabera esan liteke kirolean, ordenagailu aurrean, kalean eta tabernetan ibili ohi direla, besteak beste.

Sare sozialei erreparatzen badiegu eremu konplexua da oso. Dena den, beti bada zerbait egiterik. Nerabeei begira, Gazte Bidean nerabeentzako zerbitzuak Twitter sistema erabiltzen du gazteak informatzeaz gain eurekin txateatzeko. Hemen ere hezitzaile eta koordinatzailearen erantzukizuna handia da euskararen idatzizko erabilerari dagokionean.

Ostalaritzari dagokionean eta tabernei bereziki, gazte eta helduek denbora luzea pasatzen dute bertan bai astegunez bai asteburuetan. Dударik gabe aisi denbora luzea pasatzen den gunek dira hauek.

Honi loturik Urretxuko Udaletik orain gutxi burutzen dena aipatu behar. Urretxuko Udaletik dirulaguntzak eskaintzen zaizkie euren tabernetan euskarazko emanaldiak eskaintzen dituzten tabernariei. Kostuaren %75 gehienez ere 300 euroko sabaiarekin.

Azken finean bai opor-garaian, bai sare sozialen bidez, bai tabernetan euskal arnaguneak indartzeko ahalegina egin behar dugu.

Oso positiboa izan daiteke euskaraz ez dakien gurasoarentzat bere haurrarekin euskaraz ere jolasteko gai dela erakustea.

**Jolasez gain
euskarazko
ikuskitunak ere
eskaini daitezke,
baina beti ere
haur eta helduen
euskarazko parte
hartzea bilatuko
dutenak
(pailazoak,
magoak...).**

2.2.7 Kirola

2009an Aritz Azpeitiak azterketa lan bat egin zuen bi udaletako kirol eta kultur elkarten inguruan euskararen ezagutza eta erabileraren inguruan. Diagnostiko hori burutzeaz gain lehentasunak⁸ ezarri zituen. Euskara Zerbitzuek euskararen aldeko lanketarako lehentasun horien artean Urolaren futbol sekzioa eta Goierri saskibaloia lehenetsi zituzten, euren baitan dabilen gazte kopuruagatik eta gazteen ezagutza bermaturik dagoela kontuan hartuz. Ez zen kirol elkarten artean dauden arnaguneen araberrako plangintzarik eratu (herri-kirolak, ostadar mendi taldea...) baizik eta haur gazte gehien mugitzen zituzten bi elkarteak hartu ziren kontuan euren eragiteko.

Horretarako Ttakun elkartearen "Hezitzaileek asko egin dezakete" programa aurrera eramaten saiatu zen 2010-2011 denboraldian. Ekimenaren helburua entrenatzaile euskaldunak kontzientziaztea da euskararen arloan duten erantzukizunaz jabetzeko.

Arazoak, ordea, hasiera-hasieratik sortu ziren formazio saioak jasotzeko entrenatzaile euskaldunen faltagatik. Kirol elkarteetako zuzendaritzatik adierazten ziguten nahikoa lan izaten zutela denboraldi hasiera bakoitzean behar adina entrenatzaile lotzeko eta gainera euskalduna eskatzeak are konplikatuagoa bihurtuko lukeela bilaketa.

Kirola aisialdian hartzen ari den eta duen pisua kontuan hartuz gilitza litzateke hezitzaile, entrenatzaileek euskaraz jakitea. Arazo hori konpontzeko udalek zerbait egin dezaketelakoan gaude. Saia daiteke dirulaguntza eskainiz euskara ezagutza bermatzen duen begiraleengatik (demagun C.1 duen entrenatzaile bakoitzeko kirol elkarteari hainbat diru) hartara zuzendaritzetan ere kontuan hartzen has litezke entrenatzaile euskaldunaren gaia. Horrela balitz, errazagoa izango litzateke entrenatzaile horiek kontzientziaztea.

Beraz, lehenik udalek egin beharko lukete apustu nerabe-gazte guztiek euskara baitakite eta kirol elkarteetatik borondate falta baino laguntza falta dela baitirudi.

2.2.8 Kulturgintza

Kirol elkarteekin egin bezala kultur elkarten diagnostikoa ere burutu zuen Aritz Azpeitiak 2009an. Beste esparruetan bezala arnagune diren horiek elikatu eta baliatzea litzakete hemen ere helburu.

Adibidez, larunbat goizetako azoka egunari eman dakioke "festa-giro eta kultur atsegina". Horretarako elkarteekin akordioetara iritsiz, urteko hainbat hilabeteetan edo egun berezietan dantza, bertso saio, trikiti, txistu eta kantuen bidez alaitu liteke Zumarragako Euskadi en-

parantza inguru. Gainerako hilabeteetan, megafoniatik euskal musika jarri daiteke. Proiektu erakargarri hau udaleko Kultur eta Euskara Zerbitzuetatik koordinatu daiteke.

Halaber, herri edo auzoetako jaietan euskararen erabilera bermatzeko ahalegina egin beharko litzateke jai egunak euskal arnagune bihurtuz.

2.2.9 Komunikabideak

Egun bai Otamotz eta Otamotz.com Goierriko Hedabideak SLren kudeaketapean geratu dira Goierriko Hitza eta bere atari digitala bezalaxe. Ondorioz, eskualde mailako proiektu bilakatzen ari dira. Zumarragako udalak urteak daramatza bi ekimenak diruz laguntzen.

Fishmanek zioenari jarraiki 6. eten-urratze mailan gaudenontzat euskarazko komunikabideak elkargune eta arnagune badira. Honen harira ez zaigu komeni ahaztea euskarazko komunikabideen helburua izan dela eta dela autofinantzaketa, eta ahal den neurrian horren aldeko politikak aplikatzea komeni da. Horretarako dirulaguntza gordina eman beharrena, herritarrei doako harpidetzak eskaintzea izan liteke bidea, epe mugatu batekin (demagun 2-3 hilabete). Kanpainak bereziak egin daitezke adin-tartearen arabera, auzoaren arabera, merkatal sektoreen arabera... hartara hasiera batean dohainik jaso dezakete Goierriko Hitza eta Otamotz eta ondoren harpidetzarekin jarraitzeko aukera eskainiko zaie. Honela egunkaria eta aldizkaria ezagutarazteaz gain harpidetzaren bidea landuko litzateke.

Hortaz, euskarazko komunikabideak laguntzeaz gain ezagutarazteko ahalegin berezia ere egin beharko litzateke.

2.2.10 Teknologia berriak

Alde batetik, Udalaren baliabideak ezaguturik ez dugu eremu gehiegi kudeatzeko gaitasunik izango, baina udalaren menpeko direnetan hizkuntz irizpide finkoekin jokatu behar dugu. Hor daude, halaber, kultur etxearen Facebooka edo liburutegiarena.

Bestetik, Zumarragako Udalaren webgunean ere euskararen txokoak herritarrei erabilgarri eta interesgarri zaizkien erremintak eskaini behar ditu: udaleko euskara datuak, dirulaguntzak, euskarazko softwareak... eta guzti hauek egunean mantendu.

Azkenik, Zumarragako Udalean martxan jartzeko asmoa den "espedienteen kudeaketa sistema" izango dugu. Bertan herritarrek izapideak burutu ahalko dituzte uneoro ezagutuaz prozesua non eta zertan den. Tramitazio hauetan euskarazko aukera ere bermaturik egon be-

Udaletxearen kontratazioetan euskara ezagutza kontuan hartu behar da, baita aldi baterako diren kontratazioetan ere.

Baserri eta landa eremuak prestigiatu beharrean daude. Egun, ordea, bada kontrako diskurtsoa kaletarren artean ekologiaren bidetik datorrena: bizitza osasuntsua, ekologia, birziklatzea, naturarekiko errespetua...

harko du herritarren eskubidea den bezala, euskaraz edo gazteleraz izapidetua izatekoa eskubidea bermatuz.

Horiexek dira egun egiten den EBPnri egiten dizkiogun proposamenak euskararen erabilera eragiteko.

3. EBALUAZIOA

I

“Kontuak ateratzea: saiatzeak bakarrik ez du balio. Zer ondo atera den, zer erdizka eta zer gaizki, argi eta garbi bereizi behar dugu.” (M. Zalbide 2010).

Baina erreala al da guztiak martxan jartzea proposatzea? Oraingoan ere Fishmani kasu egin behar:

Premiazkoenetik abiatzeko: geroako gero.

Eta zeintzuk dira premiazkoenak? Bada horrentzat ere badu erantzuna soziologo estatubatuarrak:

Indarberritzeak galdera honi erantzun behar dio: zenbateraino lagunduko digu hurrengo belaunaldiak euskaraz egin dezan? Ez, eskolan bezala, gutxi-asko ikas dezan eta erdaraz jardun dezan. Bestalde, Saioa egiten dugunetik handik zenbat denborara agertuko den ondorio hori? Nola neurtu, konprobatu edo zehaztuko dugu mesedegarritzko kontribuzio hori?

Geuk ere helburua argi markatu dugu: kaleko ahozko erabilera euskararen presentzia handitu nahi dugu eta horri begirako ekintzak aukeratuko ditugu. Are gehiago dagoeneko martxan den neurgailu bat erabiliko dugu gure ekintzon ebaluagarri: kale neurketa.

Kale neurketa berak esango digu, lau urteren buruan (2013an beraz) kalean entzuten den euskararen kopuruan handitu den, hartara konparatu ahal izango dugu 2009ko datuekin eta helburua zenbatean bete dugun ebaluatu⁹.

Esan beharrik ez dago ekintza bakoitzak bere ebaluatzea izango lukeela eta kale neurketak gure helburuaren betetze maila neurtuko lukeela.

4. AZKEN HITZAK

I

Fishmanen oinarriari jarraituz EBPnren berrazterketa bat burutu dugu euskal arnaguneen indartzea ardatz hartuz. Honetarako lagunartea eta auzo hurbila eta eguneroko kale-bizitzan eragiteko proposamen egiteko

ten saiatu gara. Euskaldunek euskaldunekin euskaraz egin dezaten topaguneka sortuz, euskaraz bizi direnei edo daitezkeenei begirada ipiniz. Zertarako? Hurrengo belaunaldiek bai haur parkea, bai azoka eta kalea orokorrean eremu euskaldunagoa izan dezaten.

Bat gatoz Pello Jauregi irakasleak dioenarekin:

...Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohiturak...

Informaltasun- horizontaltasun horretan euskara aukeratzeko azpiegiturak hobetzen eta indartzen saiatuko gara. ●

BIBLIOGRAFIA

- Arrieta, A. eta Mendizabal, P. (2011): "Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra" (HIZNET *Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*. 2011 4.2).
- Azpeitia, A. (2009): "Zumarraga eta Urretxuko kultur eta kirol elkarteetako euskararen ezagutza eta erabileraren diagnostikoa", argitaratu gabea.
- Aztiker: (2010): "Otamotz aldizkaria: irakurleak eta iritziak. Urretxu Zumarraga 2010", argitaratu gabea.
- Eusko Jaurlaritz (2006): IV. *Mapa soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz.
- Fishman, J.A. (1991): *Reversing Language Shift; Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Garikano, A. 2009: "Far Westeko Euskal Herria". Iruña: Pamiela.
- Hernández, J.M. (2011): "Eta hizkuntza kare-morteroa balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa". www.udaltop.com.
- Lasa, X. (2003): Urretxu eta Zumarragako euskara, Zintzo Mintzo.
- Martinez, Z., Berrio-Otxoa, K., Altuna, O. eta Jausoro N. (2011): Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak" (HIZNET 2011, 2.1 gaia).
- Prada, A. (1999): "Centenario de las fiestas Eúscaras en Zumarraga (1899-1999).
- Prada, A. (1986): "Zumarragako kaleen historia".
- Soziolinguistika Klusterra (2001, 2005, 2009). "Urretxu eta Zumarragako euskararen erabileraren kale neurketa datuak" .
- Zalbide, M. eta Erize, X. (2010): "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko", in *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*. 2010-2011 ikasturtea. Asmoz fundazioa.

Ekimenaren helburua entrenatzaile euskaldunak kontzientziatzea da euskararen arloan duten erantzukizunaz jabetzeko. Arazoak, ordea, hasiera- hasieratik sortu ziren formazio saioak jasotzeko entrenatzaile euskaldunen faltagatik.

**Horretarako
dirulaguntza
gordina eman
beharrena,
herritarrei doako
harpidetzak
eskaintzea izan
liteke bidea, epe
mugatu batekin.**

Zuazo, K. (2001): ikasturteko “Soziolinguistika” ikasgaiaren apunteak.
Zumarragako Udala(2011): Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren
2011ko kudeaketa plana.

Zumarragako Udaleko akta historikoak.

Zumarragako Udaleko erroldatze datu historikoak.

OHARRAK

1. Informazio ondo xehetua nahi duenak: Mikel Zalbide eta Xabier Erize (2010) “Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko” (HIZNET 2011) eta Fishman, Joshua A. (1991) Reversing Language Shift; Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages. Clevedon: Multilingual Matters.

2. www.zumarraga.net > biztanleria datuak.

3. Haur etorkinentzako izaten dira egokitze ikastaroak ikastetxeetan eta hauez gaina bi udalen elkarlanarekin etorkinentzako errefortzu saioak eskaintzen dira eskola orduz kanpo era ludiko batean.

4. Bat dator Norteko Ferrokarrilaren etorrerak XIX. mendean eragindako ensantsearekin. Orduan Kale Berria edo Geltokietako kalea bezala ezagutua.

5. EBPNren inguruan informazio zehatzagoa nahi duenak posible du kontsultatzea: A. Arrieta eta P. Mendizabal: “Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra” (HIZNET 4.2 2011).

6. www.zumarraga.net >euskara > dirulaguntzak.

7. Mikel Zalbide eta Xavier Erize (2001), “Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko” (HIZNET 2011 1.3. 22. or).

8. “Lehentasunak ezartzerakoan, aurreneko postuetan geratu diren taldeak: Goierri Sas-kibaloia, Urola Futbola, Urola Eskubaloia, Goierri Pilota eta Goierri Garaia Atletismoa Bost talde handi hauek izango dira hemendik aurrera proiektuaren arreta bereganatuko dutenak” Aritz Azpeitia 2009.

9. Noski aurrera eramango balira ekintzak, ekintza bakoitza ebaluatu beharko litzateke lortzen den emaitzaren arabera. Horretarako interesgarria litzateke haur-parke eta azokako datu zehatzak bereiztea kale neurketan.